



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 13a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00148. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita landa-eremurako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarroan 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriei zuzendua. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-24/MOC-00150. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako kirol-erakunde eskudunak premiatzen baitira kasuko instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren Biltzarrak hartutako erabakiak baliogabetzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00003. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen baitu arlo garrantzitsu horretan bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-25/MOC-00010. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarritzko Arretako espezialistentzat ere. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00011. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).
- 11-25/MOC-00012. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeko egutegia. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).
- 11-24/MOC-00106. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—11-25/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean enpresen eta zerbitzuen zirkulazio askea lagunduko duen lege bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00133. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrianetara egokituko baitira. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko batzordeak onetsi du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00058. Galdera, lanaldi-murrizketari buruzkoa. Akats zuzenketa (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-24/MOC-00148. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita landa-eremurako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarro-
an 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriei zuzendua**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaetzen baita landa-eremurako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarroan 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriei zuzendua. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premiaetzen du:

1. Landa-ingurunerako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarroako 5.000 biztanletik beheitiko udalerriei zuzendua, 2025eko ekainaren 30a baino lehen.

2: Nafarroako 5.000 biztanletik beheitiko udalerrietan hutsik dauden etxebizitzak detektatzeko beste fase bat egin dezan eta, hartara, hutsik dauden etxebizitzak errolda gaurkotu dadin 2025eko ekainaren 30a baino lehen.

3: 2025eko ekainaren 30a baino lehen ezar ditzan amaitu gabe dauden NASUVINSaren eta zenbait udalen arteko hitzarmenen lehentasunak eta egutegia, eta horiek legegintzaldia amaitu artean izanen duten betetze-mailari buruzko aurreikuspen xehakaturak egin dezan”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00150. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako kirol-erakunde eskudunak premiaetzen baitira kasuko instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren Biltzarrak hartutako erabakiak balio gabetzeko

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako kirol-erakunde eskudunak premiaetzen baitira kasuko instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren Biltzarrak hartutako erabakiak balio gabetzeko. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako kirol instituzio eskudunei eskatzen die behar diren instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioak hartutako erabakiak balio gabetzeko.

2. "Iruña, Pilotaren Hiriburu" proiektua defendatzen du, pilotak hala hiriri buruz nola Nafarroako Foru Komunitateari buruz jendearenganatzen duen kirol- eta kultura-balioaren aldezen gisa”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00003. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu arlo garrantzitsu horretan bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu arlo garrantzitsu horretan bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko. Hona testua

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du "España en libertad" izeneko ekimenarekin, 2025ean zehar diktadura gainditu eta gure demokrazia ezarri izanaren 50. urteurrena ospatzeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du arlo garrantzitsu horretan bere lan-plangintza ezartzen jarrai dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, gure demokrazia eta eskubide eta askatasunen konstituzio-erregimena sendotzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Francoren diktadura aringarririk gabe gaitzesten du eta Trantsizioa eta Espainian askatasunen konstituzio-erregimenaren ezarpena balioan jartzen ditu".

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00010. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Klimaterio eta menopausiari buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta berariazkoak berma ditzan ikasle eta profesionalentzat, bai eta Oinarrizko Arretako espezialistentzat ere.

2. Azterlanak egin ditzan eta jarduera-protokolo bat landu dezan, bermatze aldera klimaterioaren eta horren barruan menopausiaren lanketa eta arreta egokiak, sintomatologiak osasunerako ekartzen ahal dituen efektuak minimizatzeari eta klimaterioa osasun-ikuspegi integral batetik tratatzen dela bermatzeari begira.

3. Gizarte osoari zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina instituzional bat abiaraz dezan, klimaterioa eta menopausia ezagutzera emateko eta naturalizatzeko, eta prozesu horien inguruan dauden sinesmenak, mitoak, aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazte aldera.

4. Azter, iker eta analiza ditzan menopausiadun emakumeen kasu haiek zeinetan osasun-era-

gina baitago goiztiartasunagatik (menopausia-aurrea), bai eta azterna eta sintoma nabarmeneko menopausia eta menopausia-oste (klimaterioa) kasuak ere.

5. Informazioa helaraz dezan kremen, pilulen eta ordezkioak eta azientifikoak diren terapien kontsumo orokortuaren eraginkortasunik ezari buruzkoa, horiek inolako kontrolik gabe erakusten baitute menopausiari loturiko sintomak tratatzeko indikazioa.

6. Diziplinarteko menopausia-unitateak sortzea azter dezan, zeinen bidez etapa honentzako arreta integralari erantzunen baitzaio, Osasun Departamentuarekin –Osasunbidea– elkarlanean.

7. Oinarrizko Osasun Laguntza eta Osasun-laguntza Espezializatua diren laguntza-mailen koordinazioa faboratu eta hobetzetu dezan, osasungintza publiko eta komunitariotik menopausiaren alorreko laguntza, irakaskuntza, ikerketa eta dibulgazioa egin dadin.

8. Menopausian zehar osasungintza komunitarioan parte-hartzea susta dezan, toki administrazioekin eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, emakumeen bizitzako etapa garrantzitsu eta luzea den aldetik.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du menopausiarekin eta klimaterioarekin lotutako osasun-produktuen BEZa murrizteko aukera azter dezan”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00011. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Navarra-Nafarroa Marka sar dezan gauzatzen dituen komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan.

2. Prozesu bat abiaraztera, beharrezkoak diren bideak ezar daitezen gizarte zibilak Navarra-Nafarroa Markaren garapenean eta ezarpenean parte hartzeko”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00012. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeko egutegia

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estatutik lortu eta argitara eman dezan Nafarroako abiadura handiko korridore osoa eraikitzeko egutegia. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2025eko lehen seihilekoan Estatutik lor dezan Nafarroako abiadura handiko korridorearen Zaragozatik Castejonerako tartearen eta Iruñerriko tartearen informazio-azterlanak onestea eta horiek eraikitzeko proiektuak lizita daitezen, Arrizabalagako tarteari eta Iruñeko geltoki berriari lehentasuna emanda”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00106. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 6an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan. Mozioa 2024ko

urriaren 31ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premia- tzen baita Nafarroako Foru Komunitatean enpresen eta zerbitzuen zir- kulazio askea lagunduko duen lege bat abian jar dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 6an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean enpresen eta zerbitzuen zirkulazio askea lagunduko duen lege bat abian

jar dezan. Mozioa 2025eko otsailaren 4ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00133. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, bai- tezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrezanetara egokituko baitira

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismoko Batzordeak 2025eko otsailaren 5ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, batezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrezanetara egokituko baitira. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Errenta bermatua babesten du, Nafarroako administrazio publikoak pobreziaren eta gizartezaugarritasunaren aurka borrokatzeko duen tresna onenetako bat den aldetik.

2. Nafarroako Gobernuiko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, batezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrezanetara egokituko baitira.

3. Nafarroako Gobernuiko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du gara ditzan indarreko foru legean aurreikusita dauden enplegurako pizga-

riak, zeinak, ebaluazio positiboa izan badute ere, lehenengo fasean soilik garatu baitira.

4. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du gara ditzan gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko lankidetzarako protokoloak eta mekanismoak, eraginkor egiteko foru lege honek eta bera garatzeko foru dekretuak lanerako moduan dauden pertsona guztientzat bermatzen duten enplegu-eskaintza egoki baterako eskubidea.

5. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du sendotu ditzan gizarte-zerbitzuen oinarritzako inklusio-programak, zenbait gizarte-entitatek landutakoekin lankidetzan, kalitatezko akonpainamendu soziala eman ahal izateko Errenta Bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara jasorik hala nahi duten pertsona guztiei.

6. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du sendotu dezan Errenta Bermatuaren erdua gizarte-babeserako eta pobreziaren aurka borrokatzeko funtsezko baliabide gisa, eta, kasua bada, beharrezkoak diren legedi-aldaketak egitea, Nafarroan dagoen diru-sarreraren bermerako sistemaren koherenziari eusteko”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

—11-25/POR-00058. Galdera, lanaldi-murrizketari buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

(Oharra: 2025eko otsailaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean akats bat atzeman zen galdera honen gaztelaniazko testuan. Akats horrek ez du eraginik euskarazko aldizkarian).